Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

5884

EBAZPENA, 2010eko azaroaren 8koa, Garraioetako zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berriak ezartzeko laguntzetarako deia egiten zuen 2010eko uztailaren 30eko Aginduan guztira ezarritako gehieneko diru kopurua aldatzeko dena.

AURREKARIAK

1.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Agindu bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berriak ezartzeko laguntza-programa bat sortu zen, eta Aginduaren 1.2 artikuluan ehun mila (100.000) euro ezarri ziren laguntza horiek finantzatzeko.

2.– Laguntzak jasotzeko eskabideak aurkezteko epea 2010eko urriaren 8an itxi zen, eta eskabideak erregistratu eta kuantifikatzeari ekin zitzaion. Bada, teknologia berriak ezartzeko zenbateko laguntza eskatu den ikusita, komeni da laguntza horietarako diru kopuru handiagoa bideratzea.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Aginduaren 1.2 artikuluak honela dio:

«Baliteke, eskatutako laguntzen zenbatekoaren arabera, diru kopuru hori handitzea aurrerago; baina egitekotan diru-laguntzak esleitzeko prozedura amaitu aurretik egin beharko da, eta ezinbestekoa izango da, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailaren beste programa batzuetan gauzatutakoen ondorioz, kreditu lotetsietan dirua erabiltzeko moduan izatea edo aurrekontuetan aldaketak onartzea. Halakorik izanez gero, Garraioetako zuzendariaren ebazpenaren bidez emango da horren berri».

2.– Horiek horrela, 2010eko uztailaren 30eko Aginduaren 1.2 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aurrekontuetan dirua erabiltzeko moduan dagoenez,

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

5884

RESOLUCIÓN de 8 de noviembre de 2010, del Director de Transportes, por la que se modifica el importe global máximo destinado en la Orden de 30 de julio de 2010, por la que se convocan ayudas para la implantación de sistemas de nuevas tecnologías en el sector del transporte público de mercancías y viajeros por carretera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

ANTECEDENTES DE HECHO

1.– Mediante Orden de 30 de julio de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, se estableció un programa de ayudas para la implantación de sistemas de nuevas tecnologías en el sector del transporte público de mercancías y viajeros por carretera de la Comunidad Autónoma del País Vasco, destinándose en el artículo 1.2 para la financiación de estas ayudas la cantidad de cien mil (100.000) euros.

2.– Con fecha 8 de octubre de 2010 quedó cerrado el plazo de presentación de solicitudes para acceder a las ayudas convocadas y comenzó el proceso de registro y cuantificación de las solicitudes presentadas. A lo largo de este periodo se ha constatado que las cantidades solicitadas para la implantación de sistemas de nuevas tecnologías hacen aconsejable un incremento de la cuantía global destinada a estas ayudas.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.– El artículo 1.2 de la Orden de 30 de julio de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, establece que:

«El importe global expresado podrá ser incrementado, siempre con anterioridad a la resolución del procedimiento de adjudicación de las subvenciones, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas, en función de la vinculación presupuestaria existente, de las disponibilidades presupuestarias que resulten de la ejecución de otros programas del Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, o de la aprobación de modificaciones presupuestarias. De producirse dicha circunstancia se dará publicidad de la misma mediante resolución del Director de Transportes».

2.– Por lo anterior, y dado que existe disponibilidad presupuestaria en los términos previstos en el artículo 1.2 de la Orden de 30 de julio de 2010,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoan teknologia berriak ezartzeko laguntzetarako deia egiten duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2010eko uztailaren 30eko Aginduan guztira ezarritako diru kopuruari beste berrehun eta laurogeita hamar mila (290.000) euro gehitzea.

Beraz, 2010eko uztailaren 30eko Aginduaren 1.2 artikuluan adierazitako gehieneko diru kopurua hirurehun eta laurogeita hamar mila (390.000) euro izango da.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honen aurka, gorako errekurtsoa jar dakioke Garraio eta Herri Lanetako sailburuordeari, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasi eta hilabeteko epearen barruan.

Bigarrena.– Ebazpen honek onartu egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 8a.

Garraioetako zuzendaria,
MIKEL DÍEZ SARASOLA.

RESUELVO:

Primero.– Incrementar en doscientos noventa mil (290.000) euros el importe global destinado en la Orden de 30 de julio de 2010, del Consejero de Vivienda, Obras Públicas y Transportes, por la que se convocan ayudas para la implantación de sistemas de nuevas tecnologías en el sector del transporte público de mercancías y viajeros por carretera de la Comunidad Autónoma del País Vasco

Por tanto, la cantidad global máxima prevista en el artículo 1.2 de la Orden de 30 de julio de 2010, queda fijada en trescientos noventa mil (390.000) euros.

Segundo.– Publicar la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Transportes y Obras Públicas, en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos desde su adopción.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de noviembre de 2010.

El Director de Transportes,
MIKEL DÍEZ SARASOLA.